**MOTZAK** BENITO LERTXUNDIREN KANTALDIA ABENDUAREN 26AN HERRIKO ANTZOKIAN
**GEHIGARRIA** 2003. URTEARI ERREPASOA · **KIROLA** HORACIO SALDAÑO XAKEAN TXAPELDUN

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko abenduaren 24a/XI. urtea/470. zkia



# *Horra Mari Domingin...*

"OLENTZERO GAUERDIKO HEGOAIZEA BERROGEI EGUNEKO HAIZEA" (esaera zaharra)

# Esperientziaren BALIOA



Utz iezaguzu gure esperientzia zure zerbitzura jartzen. Lan talde tekniko onena daukagu zure beharretarako. Enpresa moderno eta sendoa gara, eta zure arazoei konponbidea emateko aholkulari bezala garantia onenak eskaintzen dizkizugu . Hartu norabide zuzena. Utz iezaguzu guri zure aholkulariak izaten.

**Gabon zoriontsuak eta Urte Berri On denoi!**

Softlan
analisia & programazioa

**Antonio Arrillaga, 1**
**Tel. 943 74 81 05 · Faxa: 943 74 82 28**
**E-maila: info@softlan.biz**
**Web orria: http://www.softlan.biz**

# 40 URTE 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



## 40 ... azkena!

### ELGOIBARKO HERRIARI!

Hauxe da Elgoibarko Izarraren 40 urteko historiari eskainiko diogun azken alea. 40 astetan beste horrenbeste urteko historia laburbiltzen ahalegindu gara. Garrantzitsuena kontatzen. Badakigu bidean hamaika kontu laga ditugula, baina jasotakoa balekoa izan delakoan jardun dugu lanean urte osoan. Elgoibartarron oroimen kolektiboan betirako geratzeko helburuarekin egin dugu errepasoa. Elkarteak egin duena urteek borra ez dezaten.

Eta historia honetako azken kronika zuoi denoi eskaini nahi dizuegu, elgoibartarroi, alegia. 40 urteotan Elgoibarko Izarraren bueltan egon eta jardun duzuen bazkide eta herritar guztioi. Batzuk dagoeneko ez zaudete gure artean (izarren artetik egongo zarete guri begira), baina denok hartu nahi zaituztegu gogoan. Beti esan baitugu Elkarteak daukan garrantzitsuena jendea dela, bazkideak, herritarrak. Herritarron babesarekin eta berotasunaren ekin zion Elkarteak bere ibilbideari 1963ko martxoan; herritarron inplikaziori, partehartzeari eta laguntzari esker irten dira aurrera proiektuak; herritarrok eutsi diozue Elkarteari kili-kolo egon denean. Eta etorkizunean ere berdin izatea gustatuko litzaiguke.

Besterik ez, 40 urteko historia bistaratu duten argiak emendatzera doaz. Baina lasai, bihar bertan piztuko baita etorkizunerako bidea argituko digun lehen bonbilla.

Mila esker astero-astero kronikatxo hauek irakurri dituzuenoi, ondo bizi eta nahi duzuen arte.

*Imanol Larrañaga*



## Olentzero anderea:

Aurten ekarritako opari ederrenagatik eskerrak ematetik hasi nahi dut eskutitz hau: Gipuzkoako txapela Maialenek jantzi du!

Gogorra da emakumea izatea Euskal Herrian: familiaren pisu handiena bizkarrean eramateaz gain, ikasketetan nota onenak ateratzen ditugu (institutu eta unibertsitate garaiak gogoratu itzazue) eta langile bikainak, finak eta arduratsuak gara. La ostia gara. Baina gizartearen eguneroko jardunean ez da hori inon irudikatzen. Beti bigarren postuan egotera kondenatuak egongo bagina bezala da. Pribatuan errekonozimendua jasotzen dugu bai, baina gure merituek onespen publikoa- beraz gizarte osoarena- izateko sukaldeko atea gaindiezina dutela iruditzen zait sarritan.

Euskal Kulturaren mundua ere, tamalez, sukaldeko atez beteta dagoela iruditzen zait. Eragile sozial, erakunde eta kolektiboen ardura erantzukizun postuetan, agerian, gizonezkoak besterik ez ditut ikusten nik. Horregatik, 21. mendeko lehen txapelduna emakumezkoa izatea, urtetako lanaren emaitza baino, ia-ia opari bat iruditzen zait. Maialenek ere auzia ezagun duela ari gelditu zen bere azken bertsoan: "(...) baina behin behar ta omendu emakume guztiak/ta bereziki zernahi bidetan aritu ziren gutxiak/ gizarte honek beren ametsen erdibidean utziak" bota zuenean.

Balio dezala nire poz onek, beraz, zuk –Olentzero jauna-, 3 errege magoek, Santa Clausek eta beste hainbat eta hainbat gizonezko "jainkok" datorren urtera begira erreflexiona dezazuen. Oparirik ez, baizik eta gure lanaren errekonozimendua datozen garaietarako onartu dezazuen: aupa Maialen!

**Lorea Perez de Albeniz**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak ....................7
motz Motz ....................8
gehigarria ....................15
kiRolAk ....................50
aGenda ....................54

## MARGARIRI

"Nahikoa sufrituta joan zara mundu honetatik Margari. Hala ere, utz itzazu hemen minok guztiok, eta zoaz egindako lan onaren poza barnean daukazula. Txikitan egin zenuen bezala, zain gaitzazu orain ere eta zauden lekuan zaudela, egon zaitez guri begira".

Muxu handi bat,

**Ainhoa eta Nerea Lendinez**

## GAZTEEN GURASOEI

Azken bolada honetan mintzagai izan dugu Barreneko orri honetan astebukaeretako gazteen mobida. Udaletxeko arduradunak ere arazoak duen larritasunaz jabetu omen dira eta herritarren iritzia jasotzeko eskutitz bat buzoneatu dute. Gazteen guraso askoren kezka nagusia da jakitea zer egiten duten beren seme-alabek parranda orduetan: alkohola edan, porroak erre, pastilak hartu...

Gai honi buruz, Errotatxo elkarteak beste ekintzen artean, hitzaldi bat antolatu zuen. AGIPADeko tekniko batek jorratu zuen gaia: "Nola lortu nire seme alabenganako komunikazioa hobetzea". Ez naiz hemen luzatuko hitzaldiaren edukiaz baina gai interesgarri honen aurrean uste dut guraso guztiok dugula zerbait esateko.

Ez dut gutun hau bukatutzat eman nahi, nire ustez sintomatikoa den gaia aipatu gabe; hitzaldira zazpi pertsona joan ginen eta esan behar da deialdia Elgoibarko eskola guztietan zabaldu zutela. Baina hau ez da salbuespen bat; eskolek, gurasoen batzordeek, herriko zenbait erakundek lantzean behin hitzaldiak antolatzen dituzte interesgarriak diren gaiak eztabaidatzeko edo informatzeko eta, zoritxarrez, herritarren erantzuna eskasa izan ohi da. Denok gaude oso okupaturik gure eguneroko eginkizunetan eta ez daukagu astirik noizean behin hitzaldi batera joateko ere. Noren esku utzi behar dugu gure seme-alaben heziketa? Eskolaren esku? Bakarrik beraiei al dagokie? Lehen esan dudanarekin bukatu nahi dut: "sintomatikoa da".

**C.A. - NAN-15.353.403**

## MTIKOAK ESPAINOLEZ "AIUNTAMENTUAN"

Batzuk eskabadoren aurrean jarri gara, besteek dinamitatzen dituzten bitartean eskabadorak. Aurrerapenaren autopista pasa nahi dute zuhaitz zahar baten gainetik. Desagertzear dagoen espeziea da zuhaitza. Gu gera erresistentzia. Berezia zen arbola hau, perretxiko arraroak hazi ohi ziren bere itzalpean, behelainotan bere adarrek artzai bakartien ametsak inspiratu ei zituzten eta basurdeek estimutan zeukaten bizkarra bere azalaren kontra igurtzitzeko. Orain gaixo dago, azkenengo alea desagertzear, botaniko delikatuek ostroen pigmentazioa neurtzen diote egunero arbolari eta neurri juxtuan ureztatzen dute.

Botanikoekin batera zuhaitza zaintzea erabaki dugu, borrokan, lehen edo bigarren lerroan, berdin dio, aurrekoak erori ahala lerroz aurreratzen degulako. Beldurra badaukagu baina maite dugu arbola, txikitan mundua ikusteko eta munduak gu ikusteko lehioa topatu genuelako bere gainera igota. Borrokaren zirkuari begira batzuk txaloka, beste batzuk txistuka eta harrika guri. Eta eskabadoren eta gure artean, MTIkoak ehizan, euren sukalderako noski.

**Mendarok zinegotzi bat eman dion Auzolanian herri bilgunea.**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzek ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zkia.**

# Urruzunoren
## begi ezkutua
## Desorduak



Desorduak egunerokotasunaren arrastotik kanpo geratutakoak dira. Autobusa galdu eta hurrengorako heltzen diren aurpegi ez ohikoak. Kale hutsak aste erdiko ordu txikietan eta kale jendetsuak asteburu goizetan. Desorduak bi minutu lehenago iristea dira, ordu bat beranduago agertzea. Esan beharrekoa esaterik ez izatea eta izan beharrekoa ez esatea.

Eginbeharrak errutinarengatik ez egiteko balio dute desorduek. Eguneko orden zehatzetik kanpo beste hamaika orden daudela ulertzeko, agian desorden handiago bat osatuz. Esperotakoa ez egiten baloratzen jakiteko, eta jakindakoa esperotakoa izateagatik ez egiteko.

**Mikel Artola**


ASTEKARIA
**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa zuri esker

DANOBAT MAQUINAS HERRAMIENTA
GOITI GRUPO DANOBAT
ESTARTA

## KEXAK

◆ **Jaiotzen lehiaketa dela-eta guraso batzuek honako kexa azaldu digute**: “Lehiaketako lehenengo baldintzak honako hau zioen: *Jesusen Jaiotza izan behar du gai bezala. Jaiotzako irudiak berriz, edozein materialekin egin daitezke. Baina norberak egindakoa. Indibidualki edo taldetan egin dezakezue. Neska mutilek 14 urtetik beherakoak izan behar dute*. **Norberak eta gurasoak hitz berdina al da? Guraso batzuek ez al dira konturatzen beraien partaidetza zenbateko den? Hemendik aurrera bi lehiaketa egin beharko dira, bat haurrentzako eta bestea gurasoentzako”.**

▶





▲

◆ Ubitarteko bizilagun batek ondorengo kexa ekarri digu Barren-era: “**Gure kale eta loratezgiak kakazten dituzten txakurren jabeei, beraien animaliak pipikanera eramateko eskatuko nieke**”. Bide batez, pipikana jartzeko ideia eduki dutenak txalotu nahi ditu.

## GALDERAK

◆ **Udalari zenbat kostatu zaio Gabonetako argiak jartzea?** Herritar bati kalean Gabonetako argiak jarri, kendu eta kontsumoa gehiegizko gastua dela iruditu zaio, eta Udalak zenbat ordaindu duen jakin nahi du. **Udalera jo dugu, eta lan horrek 21.000 euroko aurrekontua daukala esan digute.**

▼



Barrak, Birrak eta Barreak



# PSE-EEk Gernikako Estatutuaren alde aurkeztutako mozioaren aurkako botoa eman zuten EAJ eta EAk Udal Plenoan

## PPko zinegotziek aldeko botoa eman zioten PSE-EEk aurkeztutako mozioari

Joan zen abenduaren 10ean egin zen Udal Plenoan Euskal Herriaren egungo egoera politikoa izan zen gai nagusia. Konstituzioa eta Autonomia Estatutua batetik, eta Ibarretxe Plana bestetik izan ziren aztergai debatean. PSE-EE alderdiak, Autonomia Estatutuaren defentsa egiten duen mozioa aurkeztu zuen, baina PPkoen aldeko botoa jaso zuen arren, ez zen onartua izan, EAJ eta EAk kontrako botoa eman baitzuten.

Mozioaren aurkezpenean, 1978an Autonomia Estatutua onartu zenetik, Euskal Herriko autogobernuan izan duen eragin garrantzitsua aipatu zuen Ovidio Campellok (PSE-EE). Estatutua elkargune garrantzitsu bezala aldarrikatu zuen.



EAJ eta EA alderdiek, bestalde, Ibarretxeren Planaren aldeko apustua egin zuten. Igor Palomino (EAJ) eta Nekane Ortuostek (EA) hitz egin zuten Alderdi Nazionalisten izenean. Euskaldunon borondatea kontuan izanik, Ibarretxeren Planak aurkezten dituen espazio-juridiko berrietara jo behar dela aipatu zuten.

**Josu Larizen aldeko mozioa**

Udal Plenoan, bestalde, Josu Lariz preso elgoibartarraren estradizioaren gaiari buruz ere hitz egin zuten. Herriko talde baten ordezkari moduan, EAJk Larizen estradizioaren aurkako mozioa aurkeztu zuen. PPko zinegotziek aurkako botoa eman zuten arren, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin mozioa onartu egin zuten. EAJk ez zuen kasu honetan botorik eman, abstenitu egin zen.

Josu Lariz 1988an iritsi zen Uruguayra, eta 1992an atxilotu zuten. Urtebete beranduago Espainiarako estradizioa ukatu egin zuten. 2002an berriz atxilotu zuten, eta gaur egun Argentinan dago preso. Garzonek, berriz eskatu du bere estradizioa.

## 65 EHNA gehiago egin ziren Elgoibarren

Euskal Herriko Naziotasun Agiriaren eguna ospatu zen abenduaren 13 eta 14an Euskal Herri osoan. Elgoibarren, postu bat jarri zuten Plaza Handian, eta 65 EHNA berri egin ziren. Antolatzaileak oso pozik daude herritarren erantzunarekin, eta udaberri aldera beharbada, egingo dute beste saiakera bat, jendeak EHNA egin dezan.




# Herriko hainbat enpresa eta komertziok lapurretak

## Netto, Astigarraga Kirolak eta Lerun industriguneko bi lantegitan sartu ziren lapurrak

Lapur talde profesional batek, hankaz gora utzi zituen herriko zenbait enpresa eta komertzio joan zen asteburuan. Lerungo industrigunea izan zen kaltetuena, Netto eta bi lantegitan sartu baitziren. Era berean, Astigarraga Kirolak Jausoro plazan duen dendan ere sartu ziren.

Netto hipermerkatuko lapurreta oso modu profesionalean egin zuten. Nettok segurtasun neurri handiak ditu, eta lapurrek denak gainditu zituzten. Hipermerkatutik jakinarazi dutenez, diruaren bila sartu ziren zuzenean. Ofizina zentralera sartu, diru kutxa ireki eta milaka euro eraman zituzten. Lapurrak oso profesionalak zirela erakutsi zuten, Nettoko diru kutxa oso segurua da-eta.

Lapurrak Ojmar eta beste enpresa batean aritu ziren Nettora sartu aurretik, eta enpresa hauetatik atera zuten Nettoko lapurretarako behar zuten materiala.



Astigarraga Kirolak dendan ere sartu ziren abenduaren 14ko gauean, baina dirudienez ez ziren lapur berberak izan. Denda atzeko lokal bateko horma zulatuz sartu ziren, eta jantzi ugari lapurtu zituzten. Dirudienez, dirutza handia eraman zuten arropatan.

## 38 lan aurkeztu ziren XVII. Gabonetako Jaiotza Lehiaketan

San Bartolome Parrokiako Katekesiak antolatuta, XVII. Gabonetako Jaiotza Lehiaketa izan zen joan zen igandean, abenduaren 14an. 38 lan aurkeztu ziren guztira, eta epaimahaiak Julen, Olaia, Mikel eta Anton Garcia Abad lehengusuen artean eginiko jaiotzari eman zion lehenengo saria. Bigarren saria Gorane Ayestak irabazi zuen, eta hirugarren postuan Itsaso Rodriguez sailkatu zen.




Haurrek irudimena soberan daukatela erakutsi zuten. Iazko edizioan Prestige itsasontzia izan bazen protagonista, aurtengoan Printzea eta Letizia Ortiz izan dira Ama Birjina eta San Joseren papera bete dutenak. Materialari dagokionean, plastilina izan zen nagusi, baina zenbait taldek material oso bereziak erabili zituzten. Talde irabazleak esate baterako, gozoez eginiko jaiotza aurkeztu zuen.

129 haurrek hartu zuten parte lehiaketa honetan, eta irabazleez aparte, gainontzeko partehartzaileek ere, jaso zuten sariren bat. Ondoren, Antxustegik Santa Ana kalean daukan lokalean jarri ziren jaiotza guztiak, eta urtarrilaren 7ra arte egongo dira ikusgai.



## Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek emaitza bikainak lortu dituzte Arrasateko XVI. Akordeoi Jaialdian

XVI. Akordeoi Jaialdia ospatu zen joan den abenduaren 6tik 8ra bitartean. Euskal Herriko 300 umetik gora aritu ziren lehiaketan, eta Elgoibarko ikasleek emaitza bikainak lortu zituzten. Guztira, urrezko 3 domina eta zilarrezko 7 lortu zituzten. Laura Agirregomezkorta, Alazne Uranga eta Maitane Urangak osatutako hirukoteak urrezko domina eskuratu zuen Ganbara C kategorian. Naia Membrillera bakarlari moduan aritu zen B kategorian eta zilarrezko domina eskuratu zuen. Laura eta Amaia Vegas ahizpek osatutako bikoteak Ganbara C kategorian hartu zuten parte, eta hauek ere zilarrezko domina eskuratu zuten. Azkenik, Sergio Agirregomezkorta, Miren Ibarzabal, Sara Enjuto eta Eva Jurado laukoteak Ganbara B kategorian zilarrezko domina lortu zuen.

## "Benito Lertxundi"ren kantaldia abenduaren 26an, martitzenean, Herriko Antzokian



Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak 2003ko "Euskal Kantagintza" egitasmoari bukaera ona emateko asmoz, Benito Lertxundiren kantaldia antolatu du abenduaren 26an, barixakuan, Herriko Antzokian. Kantaldi horretan Benito Lertxundi abeslariak bere azken lana, "Nere ekialdean" diskoa, aurkeztuko du. Bere diskorik landu eta garatuena da, eta autorearen heldutasun artistikoa erakusten duena. Gaueko 22:15ean hasiko da saioa. Kontzertu honetarako sarrerak (6 euro), aurrez eros daitezke Kultur Etxean, Euskara Zerbitzuan, goizeko 7:30etatik 15:00etara.

## Sigma auzoko kaperan ere ipini dute jaiotza

Sigma auzoko emakume talde batek, Gabonetako jaiotza jarri du Sigmako kaperan. 8 urte inguru daramatzate Gabonetako jaiotza egiten, eta aurtengoa ere, prest daukate dagoeneko. Astebete inguruko lana izan dela kontatu digute, baina ilusioz beteriko lana izan omen da. Goroldioa mendian batu dute, estalpea ere eskuz eginikoa da, eta jaiotzak dituen figurak ahal zuten moduan lortu edo erositakoak dira. Asteazken eta larunbatetan errosarioa egiten dute kaperan, eta hilabeteko lehenengo larunbatean, meza izaten dute. Jaiotza, Erregeak pasatu ostean kenduko dute.



## Amets Arzallus eta Sustrai Colinaren bertso emanaldia izan zen Elgoibar Ikastolan

Euskara Mintegiak urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen ditu euskara sustatze-

Elgoibar Ikastolako Euskara Mintegiak eta Errazu Bersto Eskolak antolatuta, Amets Arzallus eta Sustrai Colinaren bertso emanaldia izan zen Ikastolan joan zen abenduaren 18an. Euskara Mintegiak urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen ditu euskara sustatzeko, eta hau izan zen horietako bat.

Errazu Bertso Eskolako Ainhoa Mendibil aritu zen gai jartzaile lanetan, eta saio polita eskaini zuten. Ikastolako irakasleei zuzendutako bertsoekin hasi zuten emanaldia, amodio kontuak ere abestu zituzten, eta eguneroko gai serioagoak ere jorratu zituzten bertsolariek. Erdiko Aretoa jendez gainezka zegoen, irakasle eta ikasle asko bildu ziren bertan, eta oso gustura entzun zituzten bertsolari gazteen bertsoak.





### Ikastolako txosnan txerria erreko dute Gabon Zahar eguneko ferian

Abenduaren 27ko Gabon Zahar feria egunean, txerria erreko da Elgoibar Ikastolak antolatzen duen txosnan. Txerri hau, Armueta, Ziarda, Benito eta Barrutia Harategien emaria da. Egun osoan zehar jardungo dute txerria erretzen, eta arratsaldeko 19:00etan burruntzian erretako txerri-pintxoak eskainiko dituzte.



### Pilar Ikastetxekoak Zestoako Sastarrain baserrian izan ziren



Pilar Ikastetxeko DBH-1eko ikasleak, Zestoako Sastarrain baserrian izan ziren. 3 eguneko egonaldia egin zuten bertan, eta ekintza interesgarri asko egin zituztela kontatu digute. Besteak beste, baratzean lan egin zuten, ukuiluak garbitu zituzten, eta zaldi gainean ibili ziren. Oso ondo pasatu omen zuten, eta berriz joateko gogoarekin bueltatu ziren Elgoibarrera.

### Pilar Ikastetxekoak Zestoako Sastarrain baserrian izan ziren

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, “Kandelen argipean” ipuin kontaketa saioa izan zen Udal Liburutegian. Bi saio izan ziren, eta guztira 100 haur baino gehiago bildu ziren liburutegian. Giroa istoriora egokitu zuen ipuin kontalariak eta haurrak adi-adi entzun zituzten bere istorioak. Saio hauen arrakasta ikusirik, liburutegiko arduradunek esan digutenez, datorren urtetik aurrera, hilero ekitaldiren bat antolatzen saiatuko dira.



2003-XII-24

**VICENTE ETA REMEDIOS**
**SURYA BELARDENDA**



## GABONEN OSTEAN... DIGESTIO ASTUNAK?

**✷ Irtenbide naturalak**
Jende askok izaten ditu digestio arazoak. Gure osasunean garrantzia handia daukate, eta arazoa konpontzeko irtenbidea bilatzea oso garrantzitsua da. Aski ezagunak dira, ondoeza arinduz eta gaitz gogorragoak ebitatuz, digestioa egiten laguntzen duten landare sendagarriak.

**✷ Digestio arazoak dituztenentzako hainbat aholku:**
- Janari fuerteak (ozpina, kafea, alkohola, txokolatea...) ez jan gehiegi. Janari astunak eta grasa askodunak ebitatu.
- Honekin batera, digestioa egiten laguntzen duten landare sendagarri batzuk har daitezke. Digestioa modu naturalean egiten laguntzen dute, eta ez daukate bigarren mailako ondoriorik. Txikori belarra, baldoa, alkatxofa eta garraiska dira landare hauetako batzuk, baina norberaren behar eta gaitzaren arabera, ondo erabiliz gero, askoz gehiago dira emaitza onak lortzen lagunduko diguten landareak.

Nahi izanez gero, hemen emango dizkizugu beharrezko aholkuak! Zatoz, eta eskatu beldurrik gabe, ondo hartuko zaitugu!

*Surya belardenda*
*Vicente eta Remedios*



**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**

# osasuna

## Osasun txokuak

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

2003-XII-24

# NOLAKOA IZAN DA URTE ZAHARRA? ETA BERRIARI ZEIN TRAZA HARTZEN DIOZU?



## OIHANA CHICO

**21 urte, ikaslea**

Neretzat ondo jun da urtia. Karreria amaitxu dot, eta beste bat hasi dot. Urte berrirako ikasketak amaitxu eta lana bilatzia gustauko litzaidake. Orokorrian urte ona izan da.



## PEDRO MARI URIA

**45 urte, fresadorea**

Emazteak osasun arazoak izan ditu, eta ez da oso ona izan 2003a. 3an amaitzen diren urteak ez dira onak niretzat, 93a ere oso txarra izan baitzen. 2004a hobea izatea espero dut.



## GLORIA AGUAYO

**28 urte, erizaina**

Urte berezia izan da. Nire herria utzi eta hona etortzea aldaketa garrantzitsua, baina ona izan da. 2004ari osasuna eta guztiontzako egonkortasuna eskatzen diot.



## JOSEBA DE DIEGO

**15 urte, ikaslea**

Neretzat ona izan da urtia. Ikasketak ondo jun dia, eta gauza asko ein ditxut aurten. Datorren urterako eguraldi ona eskatzen dot, planak ein eta oso ondo pasatzeko.



## MONTSE GARZIA

**34 urte, teknikari laguntzailea**

2003a urte normala izan da niretzat, ez zait ezer berezirik gertatu. Datorrena aurtengoa baino urte hobea izan dadila eskatzen dut, osasuna izatea, eta loteria tokatzen bazait hobeto.



## SANTIAGO HERNANDEZ

**49 urte, taxista**

Herri osoa obretan izan dugu, eta trafikoari dagokionez oso urte txarra izan da. Gainera, Sigmako zubi berria ez zait batere gustatu. Datorren urtea lasaiagoa izatea espero dut.

Gorbea TABERNA
Santa Ana, 10 • Tel: 943 74 05 80

OREKA
Harreman arazoak:
- Bikote
- Familia
- Kide
Jarrera arazoak
Porrot eskolarra
Antsietatea, depresioa, elikagai arazoak...
Edificio Aurrera
Urtzaile kalea, 1. solairua
20600 EIBAR
Miriam Mujika Tel. 676 61 70 55
Ainhoa Basurko Tel. 615 70 37 25

# 2003

# URTIARI ERREPASUA

Barren
ASTEKARIA



**Urtarrilak 8**

**SORALUZE ETA MALTZAGA ARTEKO ZUBIA ZINTZILIK**

Arazo larriak sortu zituen errepidean eta Elgoibartar askok Elgetako mendatea erabili zuen egun horietan.




**Urtarrilak 12**

**KENENISA BEKELE IRABAZLE MUGERZA KROSEAN**

Mintxeta Atletismo Taldeak Mamo Wolde, Fermin Arrese, José Gurrutxaga eta Fernando Uriarte omendu zituen



**Urtarrilak 23**

**MALASYAKO ENPRESA GARAPENERAKO MINISTROA IMHn**

Malasyan Spanish Institute (MSI) proiektuaren barnean, Dato´Mohamend Nazri binTan Sri Abdul Aziz, Malsyako Enpresa Garapenerako Ministroak, IMH bisitatu zuen.

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
THE HARTFORD ASEGURUAK

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

## PROTAGONISTAK



**Urtarrilak 28**

**UDALAREN BIDEGABEKO KONTRATAZIOA**

EHk eginiko salaketa bati erantzunez, Udaleko Giza Baliabideetako teknikariaren kontratazioa bidegabekotzat jo zuen EAEko Auzitegi Gorenak kaleratutako sententziak.

### JOSU IPARRAGIRRE



**Morkaikok antolatutako VII. Argazki Lehiaketa irabazi zuen**

Jose Iparragirrek Venezuelan ateratako "Ayantepui:uraren jaiotza" izan zen epaimahaiak saritu zuen argazkia. Ikusleen artean Jose Mari Mugerzaren "Ekaitza" izan zen argazki gustokoena.

### HARITZ IRIONDO ETA ENEKO ULAZIA



**Jubenil mailako Gipuzkoako esku pilota txapeldun**

Eneko Ulazia mendarotarrak eta Haritz Iriondo elgoibartarrak osatutako bikoteak jubenil mailako Gipuzkoako Esku Pilota Txapelketa irabazi zuen.

### EVELYN SANTOS



**Urteko kirolari onena**

Donostiako Kursalean ospatutako Gipuzkoako Kirolaren Jaialdian, IMH-Eibatarrak futbol taldean jokatzen duen Evelyn Santos kirolari promesa onena aukeratu zuen bigarren urtez jarraian.

NORFO S.L.
Ondo pasa Gabonak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
GRUPO RRALMM
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570





**Otsailak 5**

**11 ELGOIBARTARRI "TERRORISMOAREN APOLOGIA" LEPORATU ZIETEN.** 2002ko azaroaren 23an Iñaki Jaio eta Iñaxio Iriondo preso elgoibartarren aldeko omenaldian gertatutakoegatik Madrilgo Auzitegi Gorenaren aurrean deklaratu zuten.



**Otsailak 13**

**CCOO SINDIKATUAK ELGOIBARKO UDALA SALATU ZUEN** Euskal Herriko Auzitegi Gorenaren sententzia ez betetzeagatik



**Otsailak 14**

**FUNDIZIOKO ERAIKIN ZAHARRA BOTA ZUTEN.** Madalan errotonda egiteko.




**Otsailak 20**

**EGUNKARIAREN ITXIERA**
Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epaileak aginduta Euskaldunon Egunkaria itxi eta 10 lagun atxilotuak izan ziren. Elgoibartar asko bildu zen protesta egitera.

JOSE pinturak
(Txema
Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.
San Bartolome, 28-1 ezk Tel: 943 74 12 55 Mobila: 629 44 23

Malape taberna
Orain asteguneten
Zorionak eta Urte Berri On!
San Frantzisko, 60

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

PROTAGONISTAK



**JOSU MUJIKA**

**Dantza Elkarteko Lehendakaria**
Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarteko Lehendakaria izango zela hurrengo 3 urteetan jakin genuen.



**ZURIÑE POLO**

**Espainiako Judo Txapelketan**
Euskadiko Judo txapelketa irabazi ondoren, 20 urtez azpiko Espainiako Judo txapelketan hartu zuen parte 48 kiloz azpiko kategorian, Alcorconen.

PROTAGONISTAK



**MERTXE SUESKUN**

**Mallorcako Museoan**
Mertxe Sueskunek egindako brontzezko eskultura bat jarri zen museoaren sarreran. Egur Arte Tailerrean izan zuen Mertxek lehen kontaktua artearekin.



**JAVIER ARRIOLA**

**Arriola IV hil zen**
Pilotaria handia izandako Javier Arriola elgoibartarra hil zen otsailaren 13an.1934. urtean jaio zen San Lorentzo bailaran eta oso gaztetik hasi zen pilotan. Munduko txapelduna izan zen 1962an eta 3 aldiz Espainiako txapeldun.

Anchústegui Sanyfer
ESPOSIZIOA
ALMAZENA
BULEGOA
Olaso industrialdea
Olaspe, 5 - 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

MAPFRE
TALDEASEGURATZAILEA
MARILUZ ROJO
Delegatua
Zorionak eta urte berri on
San Frantzisko, 40 - behea
Tel.: 943 74 05 82 - 943 74 14 04
Fax: 943 74 17 07
ELGOIBAR

San Bartolome, 6
Boutique del Pan
Boutique del Pan
Okindegia
- Artisau-ogi mota ezberdinak
- Tartak
- Opilak
- Pastelak
Gabon jai zoriontsuak eta Urte berri on bat opa dizuegu!
Mota ezberdinetako tartak enkarguz!
Telf.: 943 741107



Martxoak 5

**ALBITXURIKO INDUSTRIALDEKO B ETA K PARTZELEN (14.440 m$^2$) INAUGURAZIOA IZAN ZEN .**




Martxoak 10

**ALKATE BERRIA**

Jose Mari Oruesagasti, maiatzeko Udal Hauteskundeak arte Elgoibarko alkate




Martxoak 15

**ENBIOU EZKERTIAR ETA ABERTZALEEN PLATAFORMA AURKEZTU ZUTEN.** Maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetan aurkezteko asmoz osatu zen.




Martxoak 27

**IMH SARIEN 1.EDIZIOA**

2002-03 ikasturteko ikasle eta fabrikazio arloko beste bat saritu ziren, baita ikasle ohi aipagarriena ere.





Santa Klara, 16 behea
Tel.: 943 74 16 56 / 943 74 01 17
Mugikorra: 608 77 07 01

## PROTAGONISTAK



**ARITZA MONASTERIO**

**Himalayako Manaslu mendia igotzen saiatu zen** Peruko H uaraz herrian bizi den elgoibartarra, 7 esloveniarrekin batera.



**JULIANA ZUBIZARRETA**

**Omenaldia Azpeitian**
Martxoaren 16an, ondo merezitako omenaldia jaso zuen Juliana Zubizarreta pandero joleak. Azpeitiko kiroldegian EITBk artero antolatzen duen trikiti jaialdia aprobetxatu zuten antolatzaileek 93 urte bete berri zituen Julianari omenaldia egiteko.



**TXOMIN MJIKA**

**"Martxa a Pantxika" Musika Lehiaketako irabazlea**
Eibarko Udaleko astoaren izena daraman musika lehiaketa irabazi zuen konposatzaile eta musikari elgoibartarrak. Jendeak emandako botoen bidez aukeratu zen ereserkirik onena Astelena frontoian.



**Martxoak 15-16**
**BIGARREN AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETAZ GOZATZEKO AUKERA IZAN GENUEN**




**Aubixa**
**Euskal Girotze Barnetegia**

*Hiru probintzietako eskoletatik*
*gure etxera etortzen diren ikasle eta irakasleei.*
*Baita asteburuetan etortzen diren guztiei ere,*
***Gabon zoriontsuak eta***
***urte berri oparoa opa dizuegu.***



**Apirilak 5**

**"ELGOIBARKO HERRIA" INSTRUMENTU TALDEEN II. LEHIAKETA**

149 ikaslek hartu zuten parte 22 taldetan banatuta.



**Apirilak 13**

**KORRIKA 13 ELGOIBARTIK**

"AEKarekin herri bat geroa lantzen" lemapean iritsi zen korrika 13 Elgoibarrera. Jende mordoa bildu zen bide eta kale bazterretan.



**Apirilak 6**

**X. JOSE GURRUTXUGA HAUR KROSA**

10 urte bete ziren Elgoibar Ikastola haur krosa antolatzen hasi zenetik. Aurten 410 korrikalarik hartu zuten parte. Gurrutxagak berak moztu zuen zinta eta amaieran omenaldia egin zitzaion.



**Apirilak 16**

**ELGOIBARKO KZ GUNEAK URTEBETE EGIN ZUEN**

670 elgoibartar pasa ziren KZ gunetik lehen urtean, eta horietatik 280k jaso zuten ikastaroren bat edo beste.

PREZISIO MUNDU BAT
MYL
TALLERES MYL S.A.
Zorionak eta Urte Berri On!
Mendarozabal industrialdea,2-3 - 20850 **MENDARO**
Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es · http:www.myl.ws

INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLA
• Inazio Bereziartua Musika Eskola •
*Aurtengo Gabonetan musikaz gozatu benetan!*

## PROTAGONISTAK



### MIKEL LEON

**Xake Txapelketaren garaile**
30 minutuko "finish" erako partidak jokatu zituzten partehartzaileek suitzar estiloan eta Mikel Leon izan zen xakelaririk onena.



### IÑIGO LARIZ

**Afizionatu mailako lehen garaipena lortu zuen**
Iñigo Lariz txirrindulari elgoibartarrak afizionatu mailako palmaresa estreinatzea lortu zuen. Aldapa gorantz jartzen denean nabarmentzen da Iñigo, eskalatzaile dohainak baititu.

## PROTAGONISTAK

### HASIER ETXEBERRIA

**"Eulien bazka" nobela poliziakoa kaleratu zuen**
Susa argitaletxearen eskutik, bere laugarren nobela argitaratu du. 16tik gora liburu argitaratu ditu dagoeneko telebistako aurkezle eta kazetari ezagunak.



### ANDER OÑEDERRA

**Bergarako Tenis Txapelketa irabazi zuen**
Debarroko tenis jokalaririk erregularrenek tenis masterreko finalak jokatu zituzten Bergaran, Ander Oñederrak jantzi zuen irabazlearen txapela.




IMH
Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

www.imh.es

Azkue Auzoa, 1
20870 ELGOIBAR
Gipuzkoa
Tel.: 943 74 41 32
Faxa: 943 74 41 53
imh@imh.es





**Maiatzak 18**
**206 lagunek hartu zuten parte ELGOIBARKO MENDI ITZULIAN eguraldi zoragarriak inoiz baino herritar gehiago animatu zituen.**



**Maiatzak 10**
**C.D. ELGOIBAR JUBENIL MAILAKO TALDEAK OHOREZKO MAILARA IGOTZEA LORTU ZUEN**




**Maiatzak 24**
**EGUNKARIAREN ALDEKO EGUNA.** Egunkariaren Aldeko Batzordeak antolatuta jende asko eta giro ederra izan zen.



EAJ-EA koalizioak gehiengo osoa lortu du datorren legealdirako Elgoibarko Udalean. Izan ere, Udala osatzen duten 17 zinegotzietatik, alkatea eta 11 zinegotzi EAJ-EAkoak izango dira. Udala osatuko duten gainontzeko alderdiei dagokienez, PSEk eta PPk zituzten 2 zinegotziak mantenduko dituzte, botoetan gora egin badute ere (PSEk +139 eta PPk +8). Azkenik, EB-IUk 99ko hauteskundeetan galdu zuen zinegotzia berreskuratu du botoetan nabarmen gora egin ondoren.
Einbiouri dagokionez, plataforma ezin izan da aurkeztu baina herritarrek izan dute plataformari babesa erakusteko aukera (954 boto). Duela lau urte EH alderdiak lortu zituen botoekin konparatuz, 607 boto gutxiago jaso ditu.

ELGOIBARKO HAUTESKUNDE DATUAK

| | 2003 | 1999 |
|---|---|---|
| Errolda: | 9.099 | 9.239 |
| Emandako botoak: | 6.720 | 6.520 |
| Baliozko botoak: | 5.630 | 6.396 |
| Zuriak: | 81 | 82 |
| Baliogabekoak: | 1.009 | 43 |
| **Abstentzioa:** | **% 26,23** | **% 29,43** |

**Maiatzak 25**
**UDAL HAUTESKUNDEAK.** EAJ-EA koalizioak gehiengo osoa lortu zuen 3.683 botorekin (12 zinegotzi). Einbou Herri Plataforma ezin izan zen aurkeztu, baina 954 boto jaso zituen.

BRONCES GARITANO, S.A.
BRONCES GARITANO, S.A.
Urte Berri On guztioi!
Olaso kalea, 15 • 20870 ELGOIBAR • Tel: 943 74 41 25/74 41

Brontze eta Mekanizazio
BRONyMEC
Arriaga auzoa
Tel. 943 742 807
www.bronymec.com / comercial@bronymec.com


IDARRAGA
KAFEAK
Eguneroko errealdiak
Zorionak eta Urte Berri On!

San Frantzisko 17. Tel. 943 74 05 33-36 39



Maiatzak 25

**MAZZANTINI ZEZENZALE ELKARTEAREN ZEZENKETA**

Jose Luis Arana "Ttatti"-ren azken zezenketa izan zen, eta zoritxarrez mendaroko ospitalean amaitu zuen



**JON GARATE**

**"Plazatik gaztetxera" bertso txapelketan hartu zuen parte Elgoibarren jokatu zen saioan**

Ez zuen aurrera egiterik lortu baina bertsolaritza bultzatzen laguntzen dute berea moduko ekimenek.



**AINARA GARCIA**

**Artista Hasiberrien Lehiaketa irabazi zuen**

Ainara Garcia artista eta diseinatzaile elgoibartarrak XL. Artista Hasiberrien Lehiaketa irabazi zuen. epaimahaiak 21 sortzaile gazteren 27 lan aukeratu zituen eta Ainara Garciaren lanak saritu zituen, 7000 euroko dirusaria lortuz.



**ITZIAR GURRUTXAGA eta ELI IBARRA**

**Superligako Txapeldun Athletic-ekin**

Aurten sortu den Athletic Clubeko emakumezkoen taldeko partaide dira Elisabeth Ibarra eta Itziar Gurrutxaga eta oihartzun handia lortu duen superligako txapeldun izatea lortu zuten. Titulua eskuratu zuten partiduan 35.000 ikusleren aurrean jokatu zuten San Mamesen, marka guztiak hautsiz.






HERRI ESKOLA

*Eguberri eta Urte berri On!*



**Ekainak 4**
**DEVILSURF 2003 SARIA AZKARATEKO ERREPIDE ZAHARREAN**



**Ekainak 6**
**BILBO-BEHOBIA AUTOPISTA MERKEAGO.** Elgoibartik Donostiara 2,90 euro eta Bilbora 3,25 euro ordaintzen dira orain.



**Ekainak 6-7-8**
**GALIZIAKO EGUNA EUSKADIN ELGOIBARREN OSPATU ZEN**
Elgoibarko Galizia Kultur etxearen 25 urteurrenean, ehunka lagun hurbildu ziren Sigmako industrialdera Galizako Eguna ospatzera.



**Ekainak 20**
**ITXAROPENA ABESBATZAREN 10.URTEURRENA**


NOVAK S.L.
MEKANIZATUAK
OLASO INDUSTRIALDEA 27
TEL. 943 74 85 73 · FAXA: 943 74 39 01
novak@menovak.com
20870 ELGOIBAR
Zorionak eta Eguberri On!

ITURRI
Taberna
Zorionak eta Urte berri

Foruen plaza, 5
TEL: 943 74 28 97

PROTAGONISTAK



**MARIVI AGIRREGOMEZKORTA**

**Lehen emakumezko alkatea**
Udal plenoan aldeko 12 boto jaso ostean, Elgoibarko lehenengo emakumezko alkatea izatera pasa zen Marivi Agirregomezkorta (EAJ-PNV).



**PATXI ALDABALDETRECU**

**Omenaldia IMHko museoan**
Makina Erramintaren munduan oso ezaguna eta enpresa askoren sortzailea izan zen. 1995.urtean jubilatu zen arte. Iazko martxoan hil zen Patxi.

PROTAGONISTAK

**ARKAITZ MUJIKA**

**Bigarren Quebrantahuesosen**
Arkaitz Mujika elgoibartarrak Quebrantahuesos Zikloturistentzako Nazioarteko lasterketari neurria hartu diola dirudi. Iaz 3.postuan sailkatu zen eta aurten 2.postuan amaitu zuen.



**ABEL HERNANDEZ**

**Azkoitiko Tenis Txapelketa irabazi zuen**
23 urteko elgoibartar gazteak 10 partidu irabazi zituen errenkadan finalera iristeko eta txapelketaren 11. edizioa eskuratu zuen.



Maria Urizar
Ileapaindegia - Solariuma



Errosario 9, 1-ezk. Tel. 943 74 44 89

IDAMA

✖ ILEAPAINDEGI MISTOA ✖ MAKILAJEAK
✖ EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK
SOLARIUM-a
Urte Berri zoriontsua denoi!
Santa Ana, 7behea. ☎ 943 74 40 26 ELGOIBAR



**Uztailak 1**
**UDALEKO BATZORDE GUZTIAK EAJ ETA EA ALDERDIEN ESKU GERATU ZIREN**



**Uztailak 13**
**EUSKADIKO ARKU TIRAKETA TXAPELKETA ELGOIBARREN**




**Uztailak 11**
**3 UME SAHARARREK ETA 2 SIBERIARREK ELGOIBARKO FAMILIEKIN pasa zituzten oporrak.** 2 hilabete egin zituzten beraien herrialdetik kanpo.

ETXEPE
MEKANIZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
LAN BEREZIAK
Ibaitarte Industrialdea, A2
Tel.943 74 12 97 - 74 06 64
Faxa 943 74 43 21
e-posta: etxepe@etxepe.com
Web orria: www.etxepe.com

Aramburu
Bitxidenda
Ondo pasau San Bartolome jaiak!
San Frantzisko, 26 - ☎ 943 74 25 35

OLATZ, s.l.
SUKALDE eta KOMUNERAKO
ALTZARIAK
Pedro M. Urruzuno, 8 • Tel: 943 74 38 44

ZUBACOR, S.L.
Ondo pasa Gabon jaiak!
Ibaitarte kalea, 11
Tel: 943 74 08 44 · Faxa: 943 74 26 66



**Uztailak 5**
**SAN MIGELGO RALLYSPRINT-AREN 1.EDIZIOA**



**Uztailak 24**
**KENYA,TXETXENIA ETA HARITZ EUSKAL DANTZARI TALDEKO DANTZARIAK IZAN ZIREN NAZIOARTEKO XVII.FOLKLORE JAIALDIAN**

## PROTAGONISTAK

### MARTIN DOMINGUEZ



**5.aldiz Nahaste Borraste probako txapeldun**
Martiz Dominguezek Nahaste Borrastek sekreturik ez duela berarentzat frogatu zuen beste behingoz, eta probaren 19. edizioa irabaztea lortu zuen, 18 minutu eta 30 segunduko denborarekin.

### UNAI ARRIETA



**Bidasoak fitxatu zuen eskubaloi jokalari elgoibartarra**
Azken bi denboraldiak Kanariar Irletako Cadagua Galdar taldean jokatu ostean, ibilbide profesionala hasi zuen taldera itzuli zen.

### ARKAITZ MUJIKA



**2.urtez jarraian irabazi zuen Jesus Loroño Memoriala**
Arkaitz Mujika txirrindulariak Jesus Loroño Memoriala irabazi zuen uztailaren 5ean. Zikloturista probarik garantzitsuenetarikoan jarraian lortzen duen bigarren garaipena izan da, iaz ere lehen postuan zeharkatu baitzuen helmuga.

talleres ZAILDU S L
MAKINARIA KONPONTZEN ESPEZIALISTAK
Mandrinadorean planoekin egindako lanak
Fresadora, Taladroa, Tornua eta Errektifikadorea
Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!
Santa Klara, 40 · Tel 943 74 07 60 · Faxa: 943 74 39 95

REZOLA
gasolindegia
ZERBITZU BEREZIAK
PREZISIOZKO GARBIKETA
GARBIKETA NEUMATIKOA
ASPIRAGAILUA
Deba kalea, 20
Tel. 943 74 43 22 - 943 74 02 41



**Abuztuak 23**

**SAN BARTOLOMEAK 2003**

Aldaketak hiruretako etxapilgu tradizionalean. Izan ere, aurten 3 etxapilgu bakarrik bota ahal izan zituzten.

## PROTAGONISTAK

**ANDER SANCHEZ**

**San Bartolometako Kartel Lehiaketaren irabazlea**

2003ko San Bartolomeetako programazioaren azala aukeratzeko lehiaketa irabazi zuen









**Abuztuak 25**

**Jai giroan eta iaz baino eguraldi hobearekin bizi zituzten jaiak elgoibartarrek.**

albe

LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
NONIUS GRABATUAK

GABON ZORIONTSUAK ELGOIBAR!

Sigma Industrialdea · Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK
- INPRESIO DIGITALA

Zorionak eta Urte Berri On!

Olaso industrialdea, 27 - **ELGOIBAR**
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
E-posta: debape@telefonica.net

# Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 24 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| **25** | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 26 | Yudego | Yudego |
| 27 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Zabaleta |
| **28** | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Zabaleta |
| 29 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 30 | Ibañez | Ibañez |
| 31 | Bidasolo | Bidasolo |
| **1** | Bidasolo | Bidasolo |
| 2 | Fernandez | Fernandez |
| 3 | Yudego | Yudego |
| 4 | Yudego | Yudego |
| 5 | Zabaleta | Zabaleta |
| **6** | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Zabaleta |
| 7 | Ibañez | Ibañez |
| 8 | Bidasolo | Bidasolo |
| 9 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Zabaleta |

**FARMAZIAK**

**IBAÑEZ,** Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

*eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**

| | |
|---|---|
| **28 domekia** | Doña Mercedes |
| **4 domekia** | Izagirre |
| **6 asteartea** | Fotero |


JOSE MARI ARANZAMENDI

E D A R I

eva

GURELESA

San Miguel SIN 0,0% ALC.

INSALUS

Premium Lager San Miguel CERVEZA ESPECIAL

GASEOSA PITUSA

Santa Ana, 41 ☎ 943 74 10 41 • Mobila: 659 77 23 89



**Irailak 8**
**MINTXETA: 10 URTEZ HERRIKO KIROLZALEEN TOPAGUNE** Udal Patronatuak egitarau zabala prestatu zuen urteurrena ospatzeko.



**Irailak 11**
**IÑAKI JAIORI ONGI-ETORRIA** 19 urte kartzelan egon ondoren, irailaren 11n itzuli zen.



**Irailak 27**
**BI EIBARTAR GAZTE ZAURITUAK TREN GELTOKIAN** izandako istripuan. Iskanbila eta eztabaida piztu zuen gertakariak.



**Irailak 15**
**EUSKOTREN ENPRESAK HERRI BARRUKO AUTOBUS ZERBITZUA JARRI ZUEN MARTXAN**

AEPI
Txintxo
Inmobiliaria
Gabon jai zoriontsuak
San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 74 34 65

LA BODEGA
ERRETEGIA
**AFARI MERKEAK**
**Gure berezitasunak:**
- **Kazuelatxoak**
- **Olagarroa**
- **Haragia erreta**

P. Muguruza, 22 · Tel: 943 74 25 00



Irailak 28

**DEBA BAILARAKO HAURRENTZAKO XXIX.PERRETXIKO LEHIAKETA**

## MARKEL BERGARA



**17 urtez azpiko Munduko Futbol Txapelketan txapelunorde izan zen Finlandian**

Realeko jokalariak finalera iristea lortu zuen Espainiako taldearekin, baina Brasilen aurka galdu zuten.

## NATHALIA MELLADO



**"Raphael" abeslariaren koroan**

Nathalia Mellado elgoibartarrak "Raphaelen" koroan abestu zuen. Irailaren 25etik 28ra egon zen Madrilen, eta urrian Ameriketara joan zen. Gainera Manolo Escobarren kontzertuan ere parte hartu zuen.

## GORKA GARATE



**Bigarren postua lortu zuen Asteasuko Motokros Txapelketan**

Txusko Moto Klubeko Gorka Garatek bigarren postua lortu zuen Asteasuko 3. Motokros Txapelketan. Senior mailan hartu zuen parte eta 250 zentimetro kubikotik gorako motorrentzako kategorian.

Gabiola GESTORIA
• Ibilgailuak
• Garraioak
• Gai orokorrak
AXA ASEGURUAK
San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - ELGOIBAR

Orbea Kafetegia
San Frantzisko, 6 Tel: 943 74 31 17

OLASO TABERNA-JATETXEA
Gosariak - Menuak...
Gabon jai zoriontsuak!
Olaso Industrialdea, 15 · Tel. 943 74 31 85 - 636 01 57 07

AZPELETA elektrizitatea
Jai Zoriontsuak!
San Frantzisko, 51 behea. Tel: 943 74 12 38



**Urriak 2**
**SUSTRAI COLINA ETA AMETS ARZALLUS BERTSOLARIEK GIROTU ZUTEN ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAREN SARI BANAKETA**



**Urriak 31**
**ELGOIBARKO IZARRAK ATZERRITARRENTZAKO ERREFORTZU PROGRAMAK JARRI ZITUEN MARTXAN**



**Urriak 10**
**KONTSUMO OHITURAK HOBETZEKO PROGRAMAK JARRI ZITUEN MARTXAN DEBEGESAK DEBABARRENEAN**



**Urriak 17**
**URAREN ETA ZABORRAREN GAINEKO ZERGAK %9,5 ETA %11 IGOTZEA ONARTU ZUTEN UDAL PLENOAN**







## PROTAGONISTAK



**Urriak 18**
**"IDATZIAK" liburuxka argitaratu du Udalak euskaraz errazago idazten laguntzeko**



**IÑIGO LARIZ**

**Laugarren aldiz irabazi zuen San Pedroko igoera**
Ezin izan zuen berak ezarritako errekorra hautsi, baina erraz nagusitu zen azken metrotan Arkaitz Mujika gaindituz.



**EGOITZ MORA**

**23urtez azpiko Euskadiko Txapeldun**
21 urteko judoka gazteak Eukadiko Judo Txapelketan irabazi zuen.



**SABIN OREGI**

**Estalpeen maisua**
Jaiotzen estalpeei buruzko erakusketa egin zuen Kultur Etxean.Berak eskuz eginiko 50 estalpe baino gehiago egon ziren ikusgai.

ALBERDI
ERREKADISTA ☎ 609 264 705
ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)
BILKETAK
• Paketeak • Gestoria
• Sobreak • Komertzioa
GESTIOAK
• Ogasuna • Trafikoa • Merkataritzako erregistroa
• Diputazioa • Merkataritzako - ganbera



Ainhoa Bastida
PROTESIKO DENTALA
Tel.: 943 74 11 00
Elgoibar

Salento
Salento Pizzeria eta taberna
SanFrantzisko kalea, 48
Tel.: 943 74 01 96

NAVA S.L.
Inprimategia
ZORIONAK eta URTE BERRI ON!
Santa Ana Kalea, 44 • Tel./Fax: 943 744 451 • 20870 ELGOIBAR



Azaroak 9
GAIXOEN ALDEKO OSPAKIZUNA



Azaroak 9
45 ELGOIBARTAR IZAN ZIREN BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAN




Azaroak 21
DANOBAT DA EMAS ERREGISTROAN INSKRIBATU DEN EUROPAKO LEHEN ENPRESA



Azaroak 28
135 DENDARIK KONPROMISO ZEHATZAK HARTU ZITUZTEN MERKATARITZAN EUSKARA INDARBERRITZEKO

KAFETEGIA
Zorionak eta Urte Berri On!
San Inazio, 2 ☎ 943 74 27 22 ELGOIBAR

MAKINAK NEURRIRA
LANBI
MANIPULAZIOA eta MUNTAIA - MAKINA BEREZIA
BRUÑIDORAK - KONTROL DIMENTSIONALA
Jai alaiak igaro itzazue!
Donostia-Bilbo Errep. 53. km.
20870 MENDARO
Tel: 943 75 50 00
Faxa: 943 75 51 62
E-maila: lanbi@lanbi.com
http://www.lanbi.com

ARBELOA
INMUEBLE AGENTZIA
Jai zoriontsuak!
San Frantzisko, 34
Tel./ Faxa: 943 74 84 27

BAROLA
KARROZERIA
Olaso, 16
Tel. 943 74 31 04
20870 ELGOIBAR

PROTAGONISTAK



**Azaroak 7**
**GLOBALIZAZIOAREN AURKAKO JAIALDIA GAZTETXEAN**



**Azaroak 22**
**SANTA ZEZILIA OSPATU ZUTEN ELGOIBARKO MUSIKARIEK**

### TXOMIN ROGEL ETA DAVID CONDE




**Txapeldun eta txapeldunorde Euskadiko Ehiza Xeheko Txapelketan**
Espainiako Ehiza Xeheko finalerdian hartu zuten parte, finalaren atarian geratuz.

### JOSE MARI FERNANDEZ "SUSO"



**7. garaipena lortu zuen Karatera Igoeran**
Jose Mari Fernandezek Karakateko erregea dela frogatu zuen beste behin. Plaza Handia eta Karakateko tontorrerako ibilbidea 32 minutu eta 12 segundutan igo zituen, iaz baino 8 segundu gehiago erabiliz."Suso"k ez zuen argitu bere agur lasterketa izan zen edo ez.

### PATXI ARRIOLA



**Txapeldun Euskadiko Oilagor Ehiza Txapelketan**
Leizaran bailaran lortu zuen txapela elgoibatarrak eta Espainiako Oilagor Ehiza Txapelketan hartuko du parte Galizian.

JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON
Basarte Auzoa, 4
Telf. - Fax: 943 743 426
20870 Elgoibar
BASARTE
JATETXEA

PUB
Lajantzi
Elgoibar
Urte Berri On!

HERRI-GAIN
ERRETEGIA
San Pedro auzoa, 4
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR



**Abenduak 3**
**Eusko Jaurlaritzak Deba Digitala proiektua bultzatuko du 400.000 euroko dirulaguntzarekin.**

## PROTAGONISTAK

**ESMERALDA ZAPAROLI**

**Guadalajarako "Urrezko Erlea" lehiaketan saritua**

Espainia mailako argazki lehiaketarik garrantzitsuenetarikoan 1. postua lortu du Esmeraldak, Venezia hiriko 6 argazkirekin.










**Abenduak 1**
**HIESAREN EGUNA**
**Jende gutxik hartu zuen parte HIESaren astean antolatutako ekintzetan.**



### *ESKERTZA*

*2001eko abenduaren 28an, 67 urte zituela hil zen*
***CARMELO MODAMIO DE LEÓN**en oroimenez,*
***URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 27, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



### *ESKERTZA*

*2003eko abenduaren 15ean, 70 urte zituela hil zen*
***MARGARITA SORALUZE URBIETA**ren senar, seme eta gainerako sendiak pertsonalki egitea ezinezkoa zaigunez, bihotzez **ESKERTZEN** ditugu jasotako doluminak.*
*Igandean, hilak 21, goizeko 10:30ean Sallobenteko elizan bere oroimenezko meza izango da.*



### *I. URTEURRENA*

*2002ko abenduaren 25ean, 76 urte zituela hil zen*
***AGUSTIN URRESTI SAN MARTIN**en oroimenez,*
***URTEURRENEKO MEZA** izango da San Bartolome Parrokian, igandean, hilak 28, eguerdiko 12:30ean.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*

# HARAKINAK




JESUS BARRUTIA
MAITE ARRIZABALAGA
ISABEL ORMAZABAL
A.L. BENITO

*Euskal Okela bereizgarria duten herriko lau harakinekin hitz egin dugu saltzen duten okelak dituen ezaugarri, xehetasun eta onurei buruz. Bide batez, okelarekin zerikusia duten hainbat gai izan ditugu hizpide eta Gabon jaietarako aholkua eskatu diegu.*

■ **Zer da Euskal okela? Zer ezberdintasun ditu beste okelekin?**

**A.L. Benito (Benito haratégia):** Euskal Okela, Euskadin dauden okela eta marka ezberdinen artean nabarmentzen den kalitatezko marka da. Ez dago marka zorrotzagorik, 90 parametro baino gehiago kontrolatzen baitira salgai jarri aurrez. Euskaditik kanpo jaiotako abererik onartzen ez duen bakarra da eta animaliak elikagai naturalekin bakarrik hazten ditu. Prozesu guztia kontrolatzen da. Kalitatea bermatzeko zorroztasun hau dela-eta jaso du Eusko Label bereizgarria.

■ **Zein dira zuen helburuak?**

**A.L. Benito:** Helbururik garrantzitsuenak honakoak dira: kontsumitzaileari kalitate maila zorrotza bermatu, produktuen jatorria eta egiazkotasuna identifikatzeko ziurtasuna eskaini, ekoizleen lana defendatu eta kalitatezko nekazaritzako elikagaien ekoizpena sustatu. Honez gain, Euskal Okelako produktuak kontsumituz gure ingurunea eta ondarea diren paisaia zoragarriak babesten laguntzen dugu.

■ **Harategi batean Euskal Okelaren erakusgarriak zer esanahi du?**

**Maite Arrizabalaga (Ziarda harategia):** Baimendutako harategietan bakarrik saltzen da Euskal Okela. Euskadiko kalitatezko okela saltzeko konpromisoa hartu dugun harategiak gara eta Eusko Labelak ezartzen dizkigun kontrol sistema onartu eta jarraitzen dugu. Dagokion etiketa edo ziurtagiriarekin saltzen bada bakarrik izango da Euskal Okelako produktua. Izan ere, Euskal Okela da merkatuan dauden marken artean okela zati bat etxera eraman eta okela zati horren jatorriari buruzko informazio zehatza ematen duen bakarra.

■ **Gabonetan zer haragi mota eskatzen dizuete gehien?**

**Maite Arrizabalaga:** Denetarik jaten da, baina neguan udan baino gisatu eta salda gehiago egiteko joera izaten du jendeak. Gabon jaietan, berriz, plantxan egiteko moduko okela aukeratzen du jendeak: txahal eta txerri azpizunak, entrekota edo saihetsartekoa, adibidez, edota labean erreta prestatzen direnak, behi-koxkorrak kasu.

■ **Egia al da Gabonetan prezioak igo egiten direla?**

**Isabel Ormazabal (Armueta harategia):** Ez da egia, arkumea bakarrik igotzen dugu guri ere gehiago kostatzen zaigulako. Arrain eta mariskoarekin gertatzen ez den moduan okelaren prezioa bere horretan mantentzen da Gabonetan.

■ **Dieta eta okela uztartu al daitezke? Zein haragi mota izan daiteke onena pisurik ez irabazteko?**

**Isabel Ormazabal:** Okela da dieta onena, plantxan egina pisua galtzeko eta gisatu on bat irabazteko.

■ **Gabon Gaueko afarirako edo Gabon Zaharretarako zer gomendatuko zeniguke?**

**Isabel Ormazabal:** Nondik datorren ez dakigun azpizun edo solomilloa baino, jakineko xerra eder bat hobe da.

■ **Non eta zer baldintzatan gorde behar da okela etxean?**

**Jesus Barrutia (Barrutia harategia):** Azkar kontsumitzeko asmoa izanez gero, frigorifikoan normal gordeta nahikoa da. Luzerako baldin bada hobe da izoztea edo enbasatu eta gordetzea.

■ **Nola jakin okela bere onenean dagoen?**

**Jesus Barrutia:** Kolore naturala eduki behar du, ez ilunegia ezta zuriegia ere. Okela ebakitzerakoan, berriz, koipez beteatua egon behar da eta izozkailuan tokatzen zaizkion egunetan gorde behar da, pasatu

## *"Haragi Pastela" errezeta*



**OSAGAIAK 4 lagunentzat**

800 gr. haragi txikitua
Oliva olioa
1/2 tipula
50 gr. mahaspasa
50 gr. pinazi
1 arraultza egosia
100 gr. oliba
1 brandy kopa
500 gr. patata
Esnea
Gazta birrindua
Gurina

**NOLA PRESTATU**

Tipula ondo txikitua oliotan ondo gorritu, haragia gehituz, ondo apailatu eta haragia ia gehiegi egitekotan dagoenean, pinaziak, mahaspasak, arrautz egosia puskatan ebakita eta olibak erantsi.

Brandya gaineratu eta 5 minutuz irakiten utzi.

Patata pure egingo dugu, esnea eta gurinarekin. Ez arinegi eta ez lehorregi egotea komeni da.

Laberako ontzi batean pure geruza bat jarri eta haragia ondo zabaldu bertan, gero ontzi guztia patata purez estali eta gazta birrindua botako diogu geinetik, gurin zati batzuk sakabanaturik jarri eta labean gorriskatu.

# Horacio Saldaño argentinarrak ezustean irabazi zuen Nazioarteko Xake Txapelketa

## Lehen bi sailkatuek puntuazio berdina lortu zuten

Pronostiko guztiak hautsiz Horacio Saldaño argentinarrak jantzi zuen txapela 13. Nazioarteko Xake Txapelketan. Oleg Korneev errusiarra zen txapelketa irabazteko faborito nagusia eta ala erakutsi zuen lehen egunetan, baina errusiarrak ezin izan zuen bere laugarren garaipena izango litzatekeena lortu. Horacio Saldaño argentinarrak ez zuen inoiz amore eman eta azken jardunaldietan erakutsitako joko erasokorrari esker Korneev puntuazioan berdintzea lortu zuen. Biek eskuratu zituzten 6,5 puntu, baina argentinarrak jantzi zuen txapela desberdintzean lortutako puntuei esker. Stuart Conquest britainiarra sailkatu zen 3. postuan. Rankinari erreparatuz gero, parte hartzaileen artean zortzigarren xakelaririk onena gisa ailegatu zen Saldaño Elgoibarrera, baina garaipenari esker maisu handia izateko behar zituen puntuak eskuratu ditu. Elgoibarren parte hartzen zuen lehen aldia zen, baina oso gustura joan zen hemen bizitakoaz eta orain arte irabazi duen xake torneorik garrantzitsuena izan zela aitortu zuen. Datu azpimarragarri gisa, parte hartu zuten hiru euskal ordezkariek azken hiru postuetan amaitu zuten.



*Horacio Saldaño argentinarrak bere bizitzako garaipenik garrantzitsuena lortu zuen Elgoibarren.*

## Hobekuntzak egin dituzte Elgoibarko Igeriketa Taldeko igerilariek



Oñatiko igerilekuan erakutsi zituzten Elgoibarko Igeriketa Taldeko igerilariek azken aldian entrenamenduetan egin dituzten aurrerapenak. Taldeko 11 igerilarik hartu zuten parte Oñatin jokatu ziren probetan eta hobekuntza nabarmenak egin zituzten gehienek denboretan. Aitor Etxeberria eta Maria Barrenetxea benjamin mailako 50 metrotan aritu ziren bizkar estiloan eta 5. postuan eta 4. postuan sailkatu ziren, hurrenez hurren. Alba Zangitu, berriz, alebin mailan lehiatu zen eta sailkapen nagusiko 3. postuan sailkatu zen bizkar estiloko 50 metroko lasterketan, 53 segunduko denborarekin. Ainhoa Agirre laugarren postuan sailkatu zen, batzuk aipatzearren.

## Azkoitiak 0 eta 3 irabazi zion Elgoibarri Herri Arteko Tenis Txapelketako lehen jardunaldian

Ez dute hanka onez hasi Elgoibarko tenislariek Herri Arteko I. Tenis Txapelketa. Olaizaga kiroldegian jokatu zen lehen jardunaldia pasa den abenduaren 14an eta Azkoitiko tenislariak izan zituzten aurkari elgoibartarrek. Ander Oñederra elgoibartarrak Igor Zubizarreta izan zuen aurkari lehen partiduan eta 6-1,2-6 eta 6-3 izan zen azken emaitza azkoitiarraren alde. Bigarren partiduan Alejo Azkue izan zuen aurrez-aurre Abel Hernandez elgoibartarrak eta 7-6 eta 7-6 galdu zuen. Abel berak sasoi hobean iritsi zirela azkoitiarrak aitortu digu, "gu baino gehiago entrenatuta iritsi ziren ia egunero jokatzen baitute. Tamalez guk ez daukagu nahi adina entrenatzeko aukerarik". Binakako partidua tentsiorik gabe jokatu zuten, azken emaitza erabakita baitzegoen jadanik. Gorka Merinok eta Sebastian Boyerok osatutako bikote elgoibartarrak 6-2 eta 6-2 galdu zuen partidua. Mutriku eta Oñatiren aurka jokatu beharko dute Elgoibartarrek orain. Bi norgehiagokak irabaztea ezinbestekoa izango da aurrera pasa nahi badute.



# Eskubaloaia

## COMETEL ELG. (Jubenil neskak)




**Tente, ezkerretik eskumara:**
Ales Arrieta (entrenatzailea), Ainhoa Usobiaga, Miriam Lizarralde, Maite Landaburu, Olatz Urbizu, Ane Larrañaga, Saroa Eizagirre, Miren Agirre.

**Makurtuta, ezkerretik eskumara:**
Nerea Gil, Leire Apellaniz, Amaia Saenz, Andrea Zubiaurre, Ainhoa Uribetxeberria.

**Argazkian falta da:** Oihane Garate.

## TECNIFUELLE ELG. (Senior mutilak)




**Tente, ezkerretik eskumara:**
Jose Manuel Ruiz (entrenatzailea), Jose Angel Fernandez, Oier Konde, Jokin Alberdi, Beñat Leibar, Ion Ulibarri, Jorge Puente, Goiatz Leibar, Ander Azkue eta Iker Astigarraga (delegatua).

**Makurtuta, ezkerretik hasita:**
Josu Iriondo, Ion Aranzamendi, Xabier Ulibarri, Aritz Kruzelegi, Oscar Gomez, Iker

## EMAITZAK

### Futbola

*Pedrusko* **5** *Bergara B* **1 (1. erreg.)**
**Haundi 2** *Zestoa* **1 (Pref.)**
*Intxurre* **4** *Elgoibar* **3 (1. erreg.)**
*Elgoibar* **3** *Anaitasuna* **1 (Jub.)**
*Elgoibar* **2** *Ikasberri* **1 (kad.)**
*Aæorga* **3** *Elgoibar* **0 (Inf.)**
*Elgoibar* **0** *Bergara* **1 (Neskak)**
*Zumaiako* **2** *Elgoibar 1 (Neskak F-8)*

### Esku pilota

**Gipuzkoako Txapelketa**
*Altzatarra* **22** *Lagunak A* **9 (Nag.)**
*Urnieta* **7** *Lagunak B* **22 (Nag.)**
*Urnieta* **14** *Lagunak B* **22 (Kad.)**
*Lagunak* **18** *Olalde* **11 (Inf.)**
*Aæorga* **17** *Lagunak A* **22 (Kad.)**
*Lagunak* **22** *Altzatarra* **22 (Jub.)**

### Areto Futbola

*Kenci Elg.* **6** *Sestao* **7 (Nazional B)**
*Sport Authority* **10** - *Lanbroa* **1 (2. maila)**
*Ribera Navarra* **5** - *Magefesa* **4 (Jub.)**
*U.Z. Coop. Urretxu* **5** - *Lojantzi* **5 (Jub.)**

### Eskubaloia

*Pagoaga Elg.* **19** *Kukullaga* **24 (Kad. nesk.)**
*Egia* **33** *Tecnomeca Elg.* **20 (Kad. mut.)**
*Cometel Elg.* **20** *Kukullaga* **24 (Jub. nesk.)**
*Egia* **20** *Pneumax Elg.* **17 (Jub. mut.)**
*Antt Softlan* **22** *Arrasate* **27 (Sen. mut.)**
*Tecnifuelle Elg.* **28** *Sestao* **26 (Sen. mut.)**

## Urtezahar Eguna Aizkorrin

Morkaiko Mendizale Elkarteak urtero legez Aizkorriko puntan agurtuko du urtea aurten ere. Beraz, abenduaren 31n Aizkorrira joateko autobusa antolatu du. Goizeko 8:00etan aterako da Plaza Handitik. Itzulera 15:00ak aldean izango da. Izena emateko Errosario kaleko lokaletik pasa, telefonoz deitu (943 74 02 97) edo e-posta helbidera idatzi: morkaiko@hotmail.com Prezioa: 3 euro bazkideek eta 5 euro bazkide ez direnek.

gazte informazioa

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea*
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Astearte-ostiral: 16:30-20:00*

## BEKAK

**Ikerketa**
Barandiaran Fundazioak 2004ko Jose Migel Barandiaran ikerketa-beka antolatu du, ikerketa arkeologikoa burutu nahi duten pertsona indibidual nahiz lan-taldeentzat zuzenduta. 14.500 euroko diru-laguntza. Amaierako lana, gehienez ere, beka onartu eta bi urte eta erdiko epean entregatuko da. Epea: abenduak 31

**"Socrates-Comnius" programa**
Europako Batasunak eta Eusko Jaurlaritzak etorkizuneko hizkuntza-irakasleak prestatzeko bekak antolatu dituzte, filologia-espezialitateko, itzulpengintza eta interpretazioko edo irakasle-ikasketak egiten daudenentzat zuzenduta. Beka jasotzen dutenek Europako beste herrialde batean hizkuntzalaritzako laguntzaile gisa irakaskuntza-praktikak egingo dituzte. Bekaren iraupena: 3tik 8 hilabetera. Epea: 2004ko otsailak 1

**Laneko arriskuen prebentzioa**
Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak ondorengo alorrei buruzko ikerketa, garapen eta berrikuntzako lanak diruz laguntzeko bekak antolatu ditu: 'Gizartea eta lana', 'Kudeaketa eta antolamendu prebentiboa', `Teknologia eta materialak', 'Prebentziozko garapenak' eta 'Osasuna eta lana'. Epea: 2004ko urtarrilak 2

## LEHIAKETAK

**Laburmetraiak**
"Localia Television"ek 2003ko laburmetraien sortzaile gazteentzako lehiaketa antolatu du. Bertan zinemagintzako edozein eskola ofizialetan edo homologaturiko ikus-entzunezko ikastegiren baten matrikulatuta dauden ikasleek har dezakete parte, 12 minutu baino gutxiagoko gai libreko laburmetraiak aurkeztuz. Laburmetraiarik onena, zuzendaririk onena eta gidoirik onena saritzeaz gain, bost aipamen berezi banatuko dira. 17.000 euro saritan. Epea: abenduak 31

## LANA

**Informatikaria**
Bergarako Udalak informatikari lanpostu bat oposizio-lehiaketa libre bidez betetzeko deialdia egin du. Baldintzak: informatikako diplomatu titulua eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: abenduak 29

**Administraria**
Orkoiengo Udalak (Nafarroa) ofizial administrari lanpostu bat oposizio-lehiaketa libre bidez betetzeko deialdia egin du. Baldintzak: goi-batxilergo, lanbide-heziketa edo titulu baliokidea izatea. Epea: abenduak 26

# merkatu txikia

## Etxebizitzak

♦ Etxea salgai herri erdian. 3 logela, amueblatua, berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **661 42 60 77**

♦ Neska gazteak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **943 74 32 18 (eguerdi eta gauean)**

♦ Etxea salgai erdigunean. 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta ganbara. Altzariekin. ☎ **943 74 23 21**

♦ Pisua salgai Plaza Txikian. Berritua. 2 logela. Dena kanpora begira. ☎ **646 50 28 66 (arratsaldez)**

♦ Pisua salgai Deban. 3 logela, egongela, sukaldea eraberritua, berogailu zentrala, bi ganbara eta bi balkoi. ☎ **619 24 17 08**

♦ Etxea salgai San Antolinen. 5. ezk. ☎ **943 74 22 05**

♦ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

♦ Pisua salgai Deban. ☎ **619 24 17 08 (Marisol)**

♦ Logelak alokatzen dira San Roke auzoan. Sukaldea erabiltzeko aukera barne. ☎ **943 74 88 53**

**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

## Salerosketak

♦ Spanier Breton txakurrak salgai. Oso merke. ☎ **699 300 325**

♦ Oliozko bi berogailu salgai. Ecron Eroski markakoak. 10 elementurekin, kable biltzailea, termostatoa... 70 euro biak. ☎ **943 53 12 86**

♦ Arrue kotxe-aulkia salgai. Berria. ☎ **696 60 84 85**

♦ Peugeot 205 gasolinazkoa salgai. Egoera oso onean. ☎ **943 74 32 94**

♦ Kotxe zaharra salgai. Diesela. Erosleak jarriko du prezioa. ☎ **686 48 10 68**

♦ Newpool markako labadora salgai. 10 hilabetekoa. Garantian dago. ☎ **943 74 22 01**

♦ Bi eskopeta salgai. Paraleloak. Bata usotarako eta bestea oilagorretarako. ☎ **943 74 00 79**

## Bestelakoak

♦ Gurutze bat aurkitu dut Santa Ana kalean. ☎ **696 60 84 85**

♦ Lau urteko dalmata txakurra oparitzen da. Txipa dauka. ☎ **636 390 808 (Manoli)**

## Garajeak

♦ Garaje itxia salgai Leku Ederren. 2 auto gordetzeko lekua. ☎ **649 61 31 34**

## Lana

**ESKAERA**

♦ Emakumea etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. Egun solteak. ☎ **943 74 22 01**

♦ Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Fijo edo asteburuetan. ☎ **626 91 49 04**

♦ Bolibiako 35 urteko emakumea etxekolanak egin, edo umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **660 69 53 03**

**ESKAINTZA**

♦ Kamareroa behar da, jardunaldi osoz lan egiteko. Urtarrilean hasteko. ☎ **652 77 82 10/ 652 77 82 60**

♦ Kamarera arduratsua eta tabernako atean lan egiteko mutila behar dira. ☎ **943 74 37 71**

♦ Pertsona euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ **660 23 25 33**

♦ Esperientziadun kamareroak behar dira asteburuetarako. ☎ **670 25 04 29**

♦ Pertsona bat behar da arratsaldez haurrak zaintzeko.. ☎ **627 96 58 45 (Nerea)**

♦ Kamareroa behar da. ☎ **943 74 42 65**

♦ Emakume bat behar da 2 ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **943 74 0773 - 653 70 36 60**

## Agurrak



♦ Zorionak **Eider**, hilaren 22an, 5 urte bete zenituelako. Gurasoen eta bereziki, ahizpa Goizederren partez. Ondo pasa!



♦ Zorionak **Olatz**, bihar, abenduak 25, 6 urte beteko dituzulako. Gurasoen partez.



♦ Zorionak **Ander**ri, hilaren 29an, 9 urte beteko dituelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Jon Velar**i, abenduaren 16an, 3 urte bete zituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Eneko**ri, abenduaren 31n, 11 urte beteko dituelako. Etxekoen, eta bereziki, arreba Eiderren partez.



♦ Zorionak **Manuel**, bihar, abenduak 25, urteak beteko dituzulako. Emazte eta familiakoen partez.



♦ Zorionak **Danel Soutullo**ri, abenduaren 22an, lehen urtebetetzea egin zuelako. Gurasoen partez.



♦ Zorionak **Maialen**, hilaren 26an, 5 urte beteko dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Manex, Irati, Nerea eta Mirenen partez muxu handi bat.



♦ Zorionak **Maialen**, abenduaren 21ean, 5 urte bete zenituelako. Gurasoen eta Garaziren partez muxu handi bat.



♦ Zorionak **Eneritz**, abenduaren 17an, 8 urte bete zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, anai-arreba Arkaitz eta Maider, eta lehengusinen partez.



♦ Zorionak **Maria Beraza Cengotita**ri, hilaren 20an, 3 urte bete zituelako. Familiakoen eta bereziki, anaia Migelen partez.



♦ Zorionak **Sarai,** hilaren 30ean 5 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez. Ondo pasa!



♦ Zorionak **Sabintxo**, hilaren 23an urteak egin zenituelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Itziar**, bihar, abenduak 25, 9 urte beteko dituzulako. Gurasoen, anaia Peio eta lehengusu Axierren partez.



♦ Zorionak **Elena!** Ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat.



♦ Zorionak **Ainhoa Garcia**ri, abenduaren 20an, 9 urte bete zituelako. Gurasoen partez.



♦ Zorionak **Andrea**ri, urtarrilaren 5ean, 6 urte beteko dituzulako. Anaia Ekain, Asier, gurasoen eta izebaren partez.



♦ Zorionak **Isabel**, hilaren 20an urteak egin zenituelako. Koadrilako baten partez.



♦ Bat, bi eta hiru urte beteko dituzu datorren abenduaren 30ean. Zorionak **Aitor!** Aupa gure arduraduna! Mila muxu gurasoen partez.



♦ Zorionak **Itxasori**, hilaren 15ean, 8 urte egin zituelako. Familiakoen, eta bereziki, Joanesen partez. Muxu handi bana eskaintzen diote aitxitxa, Olu, Tito, Maite eta Manolok.




♦ Zorionak **Maria** eta **amama Jesusa**ri beraien urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki, aitxitxa Jose Mari eta Aneren partez.




♦ Zorionak **Roberto** eta **Inmaculada**ri, hilaren 19an eta urtarrilaren 4an, 38 eta 4 urte beteko dituztelako. Familiakoen partez.

# agenda

2003-XII-24

## 24 EGUAZTENA

**11:00 OLENTZERORO ONGI-ETORRIA**
Madalako parkean
Antolatzailea: Atxutxiamaika A.T. eta GAZ-T



**15:30 PRESOEN ALDEKO OLENTZERO**
aza Handian
**18:00 PARROKIKO ABESBATZAREN KALEJIRA**
**19:15 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**

## 26 BARIXAKUA

**19:00 GABONETAKO I. ARETO FUTBOL TXAPELKETA**
Olaizaga kiroldegian
Antolatzaileak: Udal Kirol Patronatua eta Elgoibar Areto Futbol Taldea
**20:00 ENKARTELADA**
Plaza Handian
Antolatzailea: Etxerat
**22:15 BENITO LERTXUNDIREN KANTALDIA**
Herriko Antzokian

## 27 ZAPATUA

**8:30 GABON ZAHAR FERIA**



**10:00 ZABALE ETA BALZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**11:00 XXII. ARDI GAZTA LEHIAKETA**
Udaletxeko Areto Nagusian
Bitartean, Mañukorta, Ziarda eta Meabebasterretxea bertsolarien saioa
**13:00 EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA ENKARTELADA**
Merkatu Plaza aurrean
**13:30 FRUITU, BARAZKI ETA GAZTA LEHIAKETAREN SARI BANAKETA**
Udaletxeko areto nagusian
**18:00 PLAZARA DANTZARA ERROMERIA**
Patxi Perez dantzari eta irakaslearen eskutik
(Euria eginez gero, Kiroldegian)
**19:00 BURDUNTZIAN ERRETAKO TXERRI-PINTXOAK**
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola, "Labela" duten harakinen laguntzarekin

## 29 ASTELEHEN

**19:00 GABONETAKO I. ARETO FUTBOL TXAPELKETA**
Olaizaga kiroldegian

## 30 MARTITZENA

**19:00 GABONETAKO I. ARETO FUTBOL TXAPELKETA**
Olaizaga kiroldegian

## 31 EGUAZTENA

**17:30 ITXAROPENA ABESBATZAREN KONTZERTUA**
San Bartolome parrokian



## 2 BARIXAKUA

**17:30 MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUA**
San Lazaro Egoitzan
**22:00 PILOTA PARTIDUAK**
Euskadiko Elite mailako lau eta erdiko txapelketa
Ikastolako frontoian
Antolatzaileak: Euskal Pilota Federazioa, Lagunak Taldea eta Kirol Patronatua

## 3 ZAPATUA

**16:30 PILOTA PARTIDUAK**
Euskadiko Elite mailako lau eta erdiko txapelketa eta San Anton Pilota Txapelketa
Ikastolako frontoian

## 5 ASTELEHENA

**12:30 LXI. MUGERZA KROSAREN AURKEZPENA**
Udaletxeko Pleno Aretoan
Antolatzailea: Mintxeta A.T., Elgoibarko Udala eta Udal Kirol Patronatua



**17:30 JAIOTZA BIZIDUNA**
Plaza Handian
**18:00 ERREGEEN KABALGATA**
Elgoibarko kaleetan zehar
**22:00 PILOTA PARTIDUAK**
Euskadiko Elite mailako lau eta erdiko txapelketa eta San Anton Pilota Txapelketa
Ikastolako frontoian

## 6 MARTITZENA

**11:30 KRISTAU IKASBIDEAREN MEZA**
Meltxor Gaspar eta Baltasarrekin
San Bartolome Parrokian
**10:15 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**
**10:15 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Herriko Antzokian

## 9 BARIXAKUA

**22:00 PILOTA PARTIDUAK**
Euskadiko Elite mailako lau eta erdiko txapelketa eta san Anton Pilota Txapelketa
Ikastolako frontoian

## IKASTAROAK

**Altzariak zaharberritzea**

Eskuz Taldeak altzariak zaharberritzeko ikastaroa eskainiko du urtarriletik aurrera. Astelehen eta ostegunetan izango dira klaseak 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Pedro Muguruzako ikastetxe zaharrean. Maiatzera arte iraungo du ikastaroak. Izena emateko 943 740801 telefonora (Mertxe) deitu dezakete interesatuek.

**Biodantza**

Haizea Emakume Taldeak Biodantza ikastaroa antolatu du. Urtarrilean hasiko da eta hiru hilabeteko iraupena izango du. Asteartetan izango da 15:00etatik 17:00etara. Informazio gehiago eta izena emateko Pitxintxu dendara joan.

**Lora lehorrez egindako eskulanak**

Lora lehorrez egindako eskulanak egiten irakatsiko da Haizea Emakume Taldeak antolatutako azken ikastaroan. Asteartetan izango dira klaseak 15:00etatik 17:00etara. Informazio gehiago Pitxintxu dendan.

## KONTZERTUAK

**Udal Musika Banda**

Udal Musika Bandak Erregetako Kontzertua eskainiko du urtarrilaren 6an, martitzenean. Lehenik, kalejiran irtengo dira goizeko 10:15ean eta San Lazaro egoitzan bukatuko dute ibilbidea. Ondoren, eguerdiko 12:30ean kontzertua eskainiko du Bandak Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako piezak joko dituzte: "Suspiros del Café España" (A. Alvarez), "White Christmas" (N. Iwai), "Tom Jones in concert" (T. Jones), "Olympic Fanfare and Theme" (J. Williams), "Jerusalen" (J. Velez) eta "La Chase" (J. Strauss).

## IKUSKIZUNAK

**Takolo, Pirritx eta Porrotx**

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak antolatuta, abenduaren 29an, astelehenean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen saioa izango da Herriko Antzokian. Bi emanaldi eskainiko dituzte, bata arratsaldeko 16:30ean eta bigarrena, arratsaldeko 18:30ean. Pailazoek, "PoxpolinMarisorgin" euren azken lana, aurkeztuko dute. 16 urtetik beherako gaztetxoentzat 3 eurokoa izango da sarreraren prezioa, eta helduentzat 6 eurokoa. Sarrerak aurrez eros daitezke Kultur Etxeko Euskara Zerbitzuan, goizeko 7:30etik arratsaldeko 15:00ak arte.

## zine

**KARTELDEGIA**

**HERRIKO ANTZOKIAN**

**"Crueldad Intolerable"**
25, eguena: 19:30-22:15
27, zapatua: 19:30-22:15
28, domekia: 19:30-22:15
29, astelehena: 22:15

**"Femme Fatale" (Z.K.)**
30, martitzena: 22:15
1, eguena: 22:15

**"Noviembre"**
1, eguena: 19:30
2, barixakua: 22.15

**"Mistic River"**
3, zapatua: 19:30-22:15
4, domekia: 19:30-22:15
5, astelehena: 22:15
6, martitzena: 19:30-22:15

**"Papa Canguro"**
4, domekia: 16:30

**"Master and Commander"**
9, barixakua: 22:15
10, zapatua: 19:30-22:15
11, domekia: 19:30-22:15
12, astelehena: 22.15

**"Super agente Cody Banks"**
11, domekia: 16:30

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## ZINEA



### "Crueldad Intolerable"

**Zuzendaria: Joel Coen.**
**Antzezleak: Billy Bob Thornton, Catherine Zeta-Jones, Edward Herrmann.**
Miles Massey (George Clooney) diruz ustelduta dagoen abokatu bikaina da. Dibortzioetan da aditua eta senar ohiak txanpon bakar bat ere galdu gabe ateratzea da bere espezialitatea. Marylin Rexroth (Catherine Zeta-Jones), berriz, ezkontzak apurtu eta senarrari azken txanponeraino kentzeko duen abileziagatik ezaguna da. Oraingoan Miles Massey gurutzatuko da Marylinen bidean eta ezingo dio senar ohiari zentimo bakar bat ere atera. Abokatua izango da bere mendekuaren jomuga.

# erretratu zaharra

2003-XII-24




Aste honetako erretratu zaharra **Maite Vallejo**k laga digu. 1965. urteko Gabonetan ateratako argazkia da. Beraien etxean ateratako erretratua da, eta ondoren, Gabonetako postal bihurtu zuten, beraien lagun eta senideak zoriontzeko.

Gogoratu ditzagun zeintzuk osatzen duten Gabonetako jaiotza berezi hau.

Ezkerretik eskumara: **Jone Garcia Vallejo**, **Agurtzane Garcia Vallejo**, **Imanol Garcia Vallejo**, **Amaia Arrieta Vallejo**, eta lurrean dagoen Jesusito txikia **Gotzon Arrieta Vallejo**.

**BANATZAILEA BEHAR DA**
**BARREN baserrietan eta Altzolan banatzeko**
**Autoa beharrezkoa**
**Informazioa: 943 74 41 12**

# GOKI ERREFORMAK

Obrak eta proiektuak

## Bainurako denetik







## Altzariak estilo guztietan

## Hidromasajean adituak







## Bainurako osagarrietan aukera zabala

## Ateekin ere lan egiten dugu



**Olaso Poligonoa, 15 - 68 pabilioia**
**Tel.:** 943 74 28 80 - 943 74 42 23 - 943 74 46 40
**Faxa:** 943 74 45 87
**20870 ELGOIBAR**

# ELGOIBARKO UDALAK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE HERRITAR GUZTIOI



"URTE ZAHARRA ONDO BUKATU ETA BERRIA HOBETO HASI"